

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

NPBak 2.300 akreditazio baino gehiago kudeatu ditu 2018ko Sanferminetarako

Ollo kontseilariak, Sanferminak gizonak zein emakumeek askatasunez eta errespetuz disfrutatzeko moduko festak izateko asmoa berretsi du

Astelehena, 2018.eko uztailak 2

Nazioarteko Prentsa Bulegoak (NPB) entzierroetarako, Txupinazorako eta Pobrede Mirako 2.300 baimen edo akreditazio baino gehiago banatuko ditu 2018an, norbere kontura zein mundu osoko 130 komunikabide, agentzia, telebista, irrati eta egunkarientzat lan egiten duten kazetarien artean.

Estatuko komunikabideez gain, Estatu Batuak, Erresuma Batua, Frantzia, Txina, Mexiko, Alemania, Italia, Txekia eta Kroazia bezalako herrialdeetatik etorritako kazetariak akreditatu dira.

Zenbait kasutan, estaldura mundu mailakoa da. Horien artekoak dira jaiei buruz informatzeko zenbait argazkilari bidaltzen dituzten agentziak. Jakinminik handiena eragiten duen ekitaldia entzierroa da, 120 komunikabidetako 400 pertsona akreditatuak dituela. 45 komunikabidetako beste 160 profesionalak Txupinazioaren berri emanen dute, Udaletxetik nahiz Seminario Etxetik. Azkenik, Pobre de Mí-rako, 35 komunikabidetako 90 pertsona akreditatu dira.

Gaur hasi eta uztailaren 14a arte, Nazioarteko Prentsa Bulegoa irekita egonen da Baluarte Biltzar-Jauregi eta Auditorioan mundu osoko kazetariei arreta emateko. NPbaren 2018ko aurrekontua 35.000 eurokoa da; Nafarroako Gobernuak 30.000 euro emanen ditu, eta Iruñeko Udalak 5.000.

Bisita instituzionala

Gaur goizean, NPBren Baluarteko instalazioak bisitatu dituzte hiru erakunde antolatzaileen arduradunek: Nafarroako Gobernuaren izenean, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako kontseilari Ana Olló; Iruñeko Udalaren izenean, Tokiko Ekonomia Jasangarriko zinegotzi Patricia Perales, eta Nafarroako Kazetarien Elkarteko presidente Patxi Pérez.

NPBak eskaintako aukera profitatuz, Ana Ollók gogoratu du Sanferminek, herrietako gainerako jaiek bezalaxe "jostaketa eta gozamenerako esparruak izan behar dutela, gizonak zein emakumeek



Ollo kontseilaria eta Komunikazioko zuzendari nagusi Pello Pellejero, Udalaren ordezkarri batekin eta NPBko kideekin batera.

askatasunez eta errespetuz disfrutatzen modukoak. Festak alaitasunerako, dibertsiorako eta abegi onerako uneak dira, eta egoera horretan ez du denak balio". Kontseilariak "askatasunez bizi izandako festaren irudia sustatzeko" konpromisoa berretsi du, "edozein eraso sexista prebenitzeko xedez eta horrelako jokabideekiko tolerantziarik ezatik abiatuta". Beranduxeago, pertsona guztiek jai-esparru guztietan duten askatasuna aipatu du, "esparru horiek herritar guztiek partekatu behar baitituzte, gozamenaren ikuspegitik eta beldurrik gabe bizitzeko eskubidetik".

Nafarroako Gobernuak Turismo Departamentuak aurten abiarazi duen "Ez da zapi bat soilik" lemapeko kanpaina aipatu ondoren, argi utzi du agerraldiaren bukaeran "edozein eraso-jarrera jokaera normalizatua bihurtzearen eta aisialdi eta festaren kulturen txertatzearen aurkako eta errefusazko mezu argia igorri behar dela" esparru guzti-guztietatik.

2018rako berrietasunak

Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak, Nafarroako Ardoak deritzon izendapenaren lankidetzaz, jaietarako akreditazioa duten pertsonen zuzendutako berrietasun jardura-programa eskainiko dute aurten, berrietasun gisa.

Horietako lehena "2018ko Sanferminetako brindisa" izanen da, uztailaren 5ean, 12:00etan, NPBaren egoitzan. Aurkezpen ekitaldian, komunikazio turistikoko plana emanen da ezagutzera, baita "Hemingway Traveler" bisitak eta jaietako buruzko informazioa zabalduko duen prentsari zuzendutako "Momenticos de la Fiesta" delakoa ere.

Egun berean, 09:30etan, prentsak "Hemingway Traveler" bisita egiteko aukera izanen du, Udaletxeko atetik irten eta Baluartean bukatuz, Javier Muñoz eta Edorta Jiménez idazleen laguntzaz. Bisita hau ingelesez errepikatuko da astelehenean, uztailak 9, 11:00etan.

Beste bisita gidatuetako bat, "Momenticos de la Fiesta" izenekoa, uztailaren 10, 11 eta 13an egingen da. Ibilbide honetan, txurrerriak, erraldi eta buruhandien konpartsa, herri kirola, txistulariak, dantzak, peñak eta jotak izango dira ikusgai, jaietan duten garrantzia azaltzeaz gain. Izen-emateak NPBan edo turismo bulegoan (oficinaturismo@pamplona.es) egin daitezke.

Zortzi kazetari eta simulagailu birtuala

Egunotan, NPBa mundu osoko komunikabideetako profesionalen topagune bilakatuko da. Bertan, lan egiteko tokiaz gain, zazpi kazetariren laguntza izanen dute San Fermin jaietako ekitaldi eta protagonisten buruzko informazioa lortzeko.

Gainera, beste kazetari batek San Fermin markaren jarraipena egingo du sare sozialetan, iaz bezalaxe. Azterketa hori oso lagungarria da soberako hedapena duten festari buruzko zenbait irudi negatibori aurre egiteko, arreta bizikidetzan eta dibertsio osasuntsuan jarritz.

Akreditazioekin batera, zenbait informazio-material ere banatuko dira; hala nola, Sanferminetako 2018ko Gida, eraso sexisten aurkako kanpainari lotutako baliabideak, mapak edo turismo-informazioa.

Berrikuntza gisa, aurten, NPBak, Prisma VR Studio konpainiak instalatutako "Bull Runner VR" izeneko entzierroaren simulagailu birtuala jarriko du kazetarien eskura, Iruñeko entzierroan lasterka egiten dutenek zer sentitzen duten esperimentatzeko aukera izan dezaten. Uztailaren 3tik 14ra bitartean erabili ahalko da.

Era berean, <http://www.sanferminofiziala.com/eu> webgune instituzionalak informazio zabala eskainiko du, gaztelaniaz eta euskaraz, hainbat bideoekin batera. NPBak jaietako protagonisten buruz gaztelaniaz eta ingelesez landutako albisteak eta erreportajeak zabalduko ditu <http://sanferminprensa.com/eu/> webgunean eta Facebook eta Twitter sare sozialetan.

Iruñeko Baluarte Biltzar-Jauregi eta Auditorioko -1 solairuan kokatuta dagoen Nazioarteko Prentsa Bulegoak lan egiteko esparru zabala du, Internetarako abiadura handiko konexioaz hornitutakoa, argazkiak, bideoak eta bestelako materialak segurtasunez bidali ahal izateko. Horrez gain, telefono

mugikorretarako wifi konexioa du, eta pantaila baten laguntzaz, entzierroaren zuzeneko irudiak ikusteko aukera eskaintzen du. Behar duten profesionalak zaintza zerbitzua ere erabil dezakete.

Hauxe izanen da irekiera-ordutegia: uztailaren 2tik 4ra, 10:00etatik 14:00etara; hilaren 5ean eta 6an, 10:00etatik 17:00etara; eta hilaren 7tik 14ra, 7:45etik 17:00etara. Akreditaturiko kazetarientzako arreta telefonoz ere emanen da 948 066 191 zenbakian (eta 192, 193 eta 194 bukaera dutenetan) eta oip@sanferminprensa.com posta elektronikoko helbidean.